

## Juan Carlos Merino González

### Alcalde de Errenteria

**L**a revista Oarso vuelve a estar en nuestras manos, fiel a su cita anual por estas fechas en las que celebramos nuestras fiestas patronales, las Magdalenas.

Tras pocas semanas de haber sido reelegido alcalde de Errenteria, quisiera primeramente agradecer a cuantos han puesto su confianza en mí para que siguiera dirigiendo el Ayuntamiento de la Villa, una ciudad a la que voy a seguir dándole todo mi esfuerzo, mi trabajo e ilusión para conseguir alcanzar las mayores cotas de bienestar posible, asegurándoos que seguiré gobernando para todos los ciudadanos, sin distinciones ni discriminaciones por ninguna causa.

Durante estos doce meses anteriores han sido muchos los proyectos que hemos puesto en marcha tales como nuevas urbanizaciones en Markola y depósito de Agustinas, peatonalización del barrio de Iztietia, inicio de la reurbanización de Olibet-Casas Nuevas, renovación integral de la plaza Pablo Sorozábal, nueva pasarela sobre el río Oiartzun, un ascensor que une diversas zonas de Capuchinos, nuevo polígono industrial, etc..., así como el continuo trabajo que se realiza, día a día, desde el departamento de mantenimiento urbano y aquí podíamos reseñar los trabajos de embellecimiento y jardinería en nuestras calles, la colocación de juegos infantiles y para la tercera edad, y así un largo etcétera.

Asimismo, conscientes del problema que supone la adquisición de una vivienda, se han entregado, a lo largo del año 2006, 315 viviendas de protección oficial y seguimos trabajando para poner a disposición de los ciudadanos más viviendas.

Pero Errenteria es una ciudad dinámica en lo cultural, por eso seguimos apoyando nuestras expresiones culturales tanto autóctonas como de otras Comunidades Autónomas, ahí tenemos Musikaste, la Feria de Artesanía, el apoyo al comercio, las Semanas culturales de Extremadura, La Rioja, Galicia; las ludotecas y locales de jóvenes, las colonias y campamentos de verano, el apoyo al deporte escolar, etc...

También este año, en el mes de diciembre realizamos un sencillo pero emotivo homenaje a todas las víctimas del terrorismo. Era y es nuestra obligación no olvidar a todos aquéllos que han sido víctimas de la sinrazón y el fanatismo. Por ello, mi compromiso y el de la Corporación de continuar trabajando para poder finalizar con esta lacra injusta que tanto dolor y sufrimiento inútil causa.

Ahora llegan días de fiesta y de alegría, en los que espero que todos mis conciudadanos así como los que nos visiten disfruten del programa elaborado por el Ayuntamiento con la estimable colaboración de las diferentes sociedades y asociaciones de toda índole. Sin estas entidades hubiera sido muy difícil conseguir no solo realizar este programa festivo, sino poseer una Villa tan dinámica, como es constatable los 365 días del año.

Para finalizar, os deseo que disfrutéis de nuestras Magdalenas y que tras estos días de alegría y fiesta nos pongamos a trabajar codo con codo y día a día por y para Errenteria, pues tenemos un año por delante para trabajar en favor del progreso de nuestra Villa, para seguir mejorando nuestras calles y plazas, para en definitiva mejorar la vida de todos y todas los vecinos y vecinas de este gran proyecto que es Errenteria.



**Gora Madalenak!! Gora Errenteria!!**



**D**agoeneko esku artean dugu berriz Oarso aldizkaria, Madalenak gertu ditugun seinale. Izan ere, gure herriko jaiak ospatzen ditugunean argitaratzen da urtero.

Orain dela aste batzuk hautatu naute berriz ere Errenteriako alkate, eta, lehenik eta behin, esker-rak eman nahi dizkiet gure herriko Udalaren buru jarrai dezadan nigan konfiantza jarri duten guztiei, eta aditzera eman nahi diet ahalegin guztia egingo dudala gure herriaren alde, lanean gogor eta ilusioz arituz, ahal den ongizate-maila handiena lor dezagun. Egon zaitezte ziur herritar guztientzat gobernatzen jarraituko dudala, inolako bereizketarik eta diskriminaziorik egin gabe.

Aurreko hamabi hilabete hauetan proiektu asko jarri ditugu martxan hala nola, Markolako urbanizazio lanak, Iztieta auzoa oinezkoentzat prestatu, Etxeberrieta eta Olibet auzoaren urbanizazio berria, Pablo Solozabal Plaza berritu, Oiartzun ibaiko pasabide berria, Kaputxinoak auzoko igogailua, industrialde berria, eta abar. Ezin dugu ahaztu hiriko mantentze lanetako eguneroko zeregina, arlo honetan aipamen berezia merezi dute gure kaleak edertzeko egindako lanak, haurrentzako eta adinduentzako jarraitako jolasak eta tresnak, etab.

Era berean, eta jakinda etxebizitza bat erostea zein zaila den une honetan, 2006an babes ofizialeko 315 etxebizitza entregatu ditugu eta lanean darraigu etxebizitza gehiago egin eta gure bizilagunen eskura jartzeko.

Errenteria gainera kultura arloan oso herri bizia da, horrexegatik bertako zein Autonomi Erkidego ezberdinetako kultur adierazpenak bultzatzen eta sustatzen jarraituko dugu, hortxe ditugu besteak beste, Musikastea, Eskulangintza Azoka, merkataritzaren sustapena, kultura asteak (Extremadurakoa, Errioxakoa, Galiziakoa), ludotekak eta gazteen lokalak, udalekuak eta udako kanpamentuak, eskola kirolaren lanketa, ...

Joan den urte honetan, abenduan, omenaldi xume bezain hunkigarria egin genien terrorismoaren biktimei, gure betebeharrari eutsiz. Izan ere, ez ditugu ahaztu behar zentzugabekeriak eta fanatismoak eragindako biktimak. Horregatik, nire konpromisoa eta Udalbatzarena adierazi nahi dizuet: lanean jarraituko dugu samin eta alferrikako sufrimendu handia eragiten dituen gaitz bidegabe horrekin amaitzeko.

Orain festa eta alaitasunerako egunak iritsiko zaizkigu, eta espero dut guztion gozamenerako izatea, gure herriko bizilagunen eta kanpotik bisitan etorriko zaizkigunon gozamenerako; izan ere, Udalak asmo horrekin osatu du elkarte eta talde ezberdinen ezinbesteko laguntzari esker aurtengo jai egitaraua. Azpimarratu nahiko nuke elkarte hauen laguntzarik gabe ezingo genukeela ez bakarrik jai egitarau hau osatu, hori baina askoz ere gehiago, ez genuke izango dugun herri bizia eta dinamikoa, eta hori urteko 365 egunetan egiaztatu dezakegu.

Beraz, goza ezazue Madalenetan eta jai egun alaitsu hauen ondoren, lanean hasiko gara berriz ere, eta elkarrekin jardungo dugu egunero gure herriaren alde, kaleak eta plazak berritzen, finean gure bizilagunen ongizate-maila lantzen, eta jakina Errenteriaren aldeko proiektua sustatzen.

**Gora Madalenak!! Gora Errenteria!!**